*El abeto es muy grande; pero hay poco al lado de los pinos; el material es más basto, pero guardándolo mojado, dura, tanto como el coral de pino; aquí antes buscamos el abeto, que el pino, para hacer borda o casa. Si se tira (corta) y se pone enseguida bajo el agua o en un sitio mojado, estoy por decir que no se pudre jamás. El abeto también cría piñón como el pino, y los jóvenes llevan por la*

corteza unos bultos como ampollas; esos bultos están llenos de trementina, y la trementina se recoge para medicamento. Tiene el fuego peor que el pino.

Hay menos hayas que abetos aunque hay muchos hayedos, hay pocos para hacer maderos, con el material del haya se hacen remos para el mar, palas, aros, y muchos otros. El fuego es (tiene) mucho mejor, que el pino.

El roble crece también poco; el material es muy bueno para hacer mesas, puertas y cubas de vino. Tiene el fuego mejor que el haya.

El encino tiene el material muy fuerte. Los carpinteros lo buscan para colocar en herramientas. Tiene el mejor fuego de todos los árboles; la ceniza tiene también gran fuerza; las mujeres si no la mezclan para hacer la colada con alguna otra ceniza, se les agrietan las manos, al momento de lavar.

Al fruto que tienen el haya, el roble y el encino, se le dice al del haya magalla, al del roble zin, y al del encino artazi, a todos juntos ezkur; en el año en que hay bellotas se llevan los cerdos a la bellota; la mejor de todas es la bellota de encino; las gentes la comen también como castañas.

El abeto y el pino crecen también en los lugares sombríos (pacos); el haya en las sierras; el roble en los carasoles; y el encino en las tierras de peñas. Yo tengo oído, los pinos y los abetos, que tienen la vida de trescientos años; estos árboles en la tierra en que nacen, se apoderan de todos los otros árboles. El haya tiene la vida más larga; no he oído jamás que un roble o un encino se sequen por sí mismos.

De los demás árboles (de abajo), los más que nacen son el boj, el espino, el acebo, y la argoma. El boj es el más fuerte de todos los árboles y el más liso; de boj se hacen cucharas, peines, y los carpinteros lo gastan (usan) para poner adornos en otros materiales. El fuego lo tiene tan fuerte como el del encino; el espino también hace buen fuego; los carpinteros lo buscan para hacer ejes; la hoja del acebo es buena para las cabras y las ovejas; vienen de Aragón y compran todo el monte, para quitarle la corteza; de la corteza hacen goma para coger pájaros vivos.

La argoma lo más tiene de vida veinte años, pero como se va secando va naciendo.

## 11

Bidankoze 1903ko. Abentiuaren 18na.

Don. Resurrekzion María.

Ene jein ona: Abañozko Bazkuek alegría emoiten daitadeinagatik, eta, lein oren ekusi nindionaz geroz amorio emoiten daitadanaz, obligatan nu karta kaur eskribi dazaudan erraiteko, Jesukristo gore salbazaliaren sortiako bazkoak, urte zarreko egunak, urte berri eta, errege egunetako xeyak, igar ditzan kain alegre nola nik gogoan baidazkad; nik ere, uste dud kala igar, ezpada oboroazgoko nobedaderik.

Tenpra berian, nola azken kartan papera bete baizitzaitadan, eznaun obro isari; kemen aztan dra ere, txutxika (sabuko) eta urrutxa (abillano). Txutxika loria, bedatsian biltan da urte guzuko; gatarro denian, lore kontarik egos eta azukarreki edo arraultze gorringoareki (bietarik barimadu obe) onki batitruk, lore urareki nastekatruk edaten bada aldi bakotxian gatulu baten dina, laxatan

dra burarrak. Bay zazointuz gero ere, anitxek biltan dei tinte beltx egiteko. Materiala da on axkora igointako; sua du gaxto.

Urrutxaz egiten dra xoraltiak aziender lepuetan txintxerrieki isartako; bai egiten da ere, zare, zello, eta berze gaiza franko; urrutx zarrak ebaki, eta brotoin egoxten teinak eta izorrek iror edo laur urtetakuan ebakitan dra; nola baitu korrea da zail murteko (a); ketaz lotan dra zunrak saltra eramaiteko; anitxek bizia erkiten dei makila ketarik, ebaki ta saltan.

Eztago arbole frutuzkorik, ezpada zomait arantze, eta itzagurtze, anke berze gisako arbole anitx aztan dela, eztu merexi ixar bakotxaren izenik, ezbaitei probetxurik emoitzen.

Yaketa nay baitu kartetako papera aprobetxa tzadan ene uskaraz, denaz den; biar daud erran, ez nazala adexkide kontu baten bi aldiz kontatako, eta ez ele baten bi aldiz erraiteko. Nola karta oiltu daudanetan kainbat xardokitu baitaud, ezta estrañu izanen, gaiza bat erran dazaudan, bi, eta obro aldiz, ez baitakid zer dakadan erranik; eztud dudarik erreparatu diola itz batez mintzatan grela, bi gisatako elen, baya kaur, xardokitu bage, edo, esplikazionerik emon bage eztakid nola entelegatra emon.

Tenpra digu ulun; badu ogey egun, elurte andi batek pean gazkala; gizon guziuak gazka sukunetan, akokiñatruk, zankabizkarrak (b) errerik; eta emaztetarik aborritruk; ezbaitegiuei egiten berze gaizarik, ezik, aparioak drezaraz, puntialki ordu xakinetako, eta, estorbu sukalte lanen antzatako (c). Bidiak elur anitxex daude zerratruk; ezta nabetan baizik gente soila; orai berian dago elurra paupaka, kopoak erorten dra sonbreroak bikain andi. Kemen erraitia digu, elur larriak, elur andi, elur xñeak, egunaldi; nola xin baizaikugu uste bino lein, bere tenprako mendi lanak arrapatu daizkugu erdi eginik; lein ezik tenpra anitx, asen da gentia kontatan zomait nestate.

Atzo arratsen ene adexkide bati, berze adexkide batek, oiltu zaun besugo puxka bat; eta kartarik, niri oiltu zaitadan, amintto bat; kartarik partitu dabeid familia guziuari, aminttirrina bana, erraiteko, guziuek besugo testatu digula.

Engoxan antze zaikugu, llarne mantria sotoaren erdian (d); eltu dra txerriak eta autse daikugei kalako gisatan, isari baitey zatika, porroka, xerbiga, xigote, portteka-porttekatruk (e).

Orai aspaldixko batez, biar digu, urte guzuko tenprarik obenena igari, azkaziz, azkazi; eta, adexkidez, adexkiden etsetan, txerri iltako funzionetan; txerrietaz gizenten gra, orobat nola urak gizentu baidra gutaz, edo guk emonaz.

Baitakid orren ojeto prinzipala zerengatik den, kartaz, anke bernaierik (f) bage, ekusten diona gisa, isartan dazkad gaizak, kasoak emon bage; baitare zomait gaiza izan bage, solamente ta, bea dein, entzun tzan, ekus tzan eta entelega tzan gore uskara.

Mariano Mendigatxa

Vidángoz 18 de diciembre de 1903

*Don Resurrección María.*

*Mi buen señor: Por la alegría que me dan las próximas Pascuas, y habiendo visto desde el primer momento la amistad que me da (presta o tiene), me obliga que le escriba esta carta para decir, que las pascuas del nacimiento de nuestro Salvador Jesucristo, los días de año viejo, de año nuevo y, las fiestas de los días de reyes, los pase tan alegres como yo las tengo en mente; yo también pienso pasarlo así, si no hay más novedades.*

*Al mismo tiempo, como se me llenó el papel en la última carta no le puse más; aquí crecen también, el sahúco (txutxika) y el avellano (urrutxa). La flor del sahúco se recoge en primavera para todo el año; cuando hay catarro, se cuece de estas flores y con azúcar o con yema de huevo (si tiene de los dos mejor) bien batido, si se bebe mezclado con el agua de la flor cada vez la cantidad de una taza, se aflojan los pechos. También después de pasada la sazón, muchos la recogen para hacer tinte negro. El material es bueno para mangos de hacha; tiene mal fuego.*

*Se hacen de avellano los collares para colocar con los cencerros en los cuellos de los animales; también se hacen cestas, aros, y otras muchas cosas; cortar los viejos avellanos, y los que echan brotes y raíces se cortan a los tres o cuatro años; como tiene correa es fibroso para torcer; con estos se atan los maderos para llevarlos a vender; muchos sacan la vida de estos palos, cortándolos y vendiéndolos.*

*No hay árboles frutales, si no es algún ciruelo y nogal, aunque crezcan muchos árboles de otra clase, no merece poner el nombre de cada uno, porque no dan provecho.*

*Ya que quiere usted que yo aproveche el papel de las cartas, como sea, con mi uskara; le debo decir, que no soy amigo de contar un cuento dos veces, y tampoco de decir dos veces una palabra. Como le he hablado tanto en las cartas que le he enviado, no será extraño que le diga una cosa dos y más veces pues no sé qué le tengo dicho; no tengo duda que habrá reparado V. que hablamos de una palabra, de dos formas de las palabras, pero esto, sin hablar, o sin dar explicaciones no sé cómo dar a entender.*

*Tenemos el tiempo obscuro; hace ya veinte días que una nevada grande nos tiene debajo; nos tiene a todos los hombres en los hogares, acoquinados, quemándose las espinillas y aborrecidos por las mujeres; pues no les hacemos otra cosa sino hacerles preparar las comidas puntualmente para la hora fijada (sabida) y estorbo para preparar los trabajos de la cocina. Los caminos están cerrados por la mucha nieve; no navega sino gente aislada; ahora mismo está la nieve cayendo a copos; los copos caen tan grandes como sombreros. Aquí tenemos el dicho, nieve enorme, nieve grande, nieve menuda, buen tiempo; como nos ha venido antes que pensarlo nos ha cogido a medio hacer los trabajos del monte de su tiempo; antes de mucho tiempo, empezará la gente contando algunas necesidades.*

*Ayer en la noche a un amigo mío, un amigo suyo le mandó un poco de besugo; y de él me mandó a mí un poquito; de él les he partido a la familia un poquitico a cada uno para decir que todos hemos probado besugo.*

*En la mañana se nos ha olvidado en la cuadra la manta de la era; han entrado los cerdos y nos la han roto de tal forma, pues la han puesto en pedazos, hecha migas, en trizas, casi hecha polvo.*

*Ahora por un poquito de tiempo, debemos pasar el mejor tiempo de todo el año, entre parientes y amigos, en las casas de los amigos, en las funciones de matar el cerdo; nos engordaremos de los cerdos, lo mismo que ellos se han engordado de nosotros, o de lo dado por nosotros.*

*Ya sé por qué es su objeto principal, por eso aunque sin pies ni cabeza, como usted lo ve, le pongo las cosas sin dar los casos; también algunas otras cosas sin ser, solamente y para que mire, oiga, vea y entienda nuestro uskara.*

(además de la carta)

Gizon batek, umien aztako tenpran, bati, ekusi zaun *aumenta andi andi artiaz* (g), au bazterretarik erorten zitzazkaun, eta, tenpra berian ñiska ñaska arroitu egiten zion, mastekatako tenpran arrepentitako, (azkurriatako) (h) erran zaun: *txerria*, xan zak gente gisa; berze bat, zion nexarontzi kari ixilaraztako, esku zeñuareki erraiten zaun: to (i), txiflete bat emoyen doke (emon yake) ezbayaz ixiltan. Aztako tenpra guziuan egon zen begireki, zoinek zion bizitarzun oberena, eta bere baitatu zion (j) zarrena. Gero tenpra eltu ta erran zaun: yik biar duk etseko izan, eta biar duk kalakoareki bordaltu; eta semiak erresponditu zaun: eztud gogorik kareki bordaltako. Berriz erran zaun aitak: bada ez kareki bordaltakoz eztuk zer etsiarekin (k) eta ez lanik egin ere, gen akida ene antzinetik sekulako; korreki oiltu zion.

*Un hombre, en el tiempo del crecimiento de los niños, vio a uno pidiendo mucho para recibir mucho, se le caían por los extremos de la boca, y al mismo tiempo hacía el ruido (ñiski ñaska) de comer, mientras masticaba; para reprenderle le dijo: cerdo, come como la gente; otro, para hacer callar a aquel llorón, con amenazas de la mano le decía: toma, te daría un revés si no te callas. En todo el tiempo de la crianza estuvo observando, cual tenía la mejor vida, y tomó afecto al mayor. Después llegado el tiempo, le dijo: tú tienes que ser para la casa, y te debes casar con fulana; y el hijo le respondió: no tengo deseos de casarme con ella. De nuevo le dijo el padre: pues si no te casas con ella no tienes nada con la casa y ni siquiera trabajo, quitate de delante de mí para siempre; con esto lo despidió.*

## 12

Bidankoze 1904'ko. Urtarrilaren 10 gn.

D. Resurrekzion Maria.

Ene jein ona:

Kontan oiltan daud errespuesta, orrek, azken kartan, erraiten daitadanen, gaizena; ene ustez isartan daud dakidan obekienaz; eztakid berzain berze, nola entelegatan daitadan, erraiten daudanen, gaizetarik; zeren ez baitakid eskribitan onki; eta *plumak* ere laster egiten daitad zomait letra isari bage (a).

Gaiza galt egiten daitadanetarik, ekusten dud, zomait gaxki isaririk daudela.

Karta oiltu daudan guziuetan, falta egozten daud, eta kontan, bakotxatan bino obro; al banintza txori baten gisa bidajiak egin, bolan, naroder ekusen nindion orren altakan; gaiza galt egiteko, eta bay entelegatra emoiteko ere.

Orai asen naz errespuesten emoiten erdaraz, obeki entelegatra emoiteko.

1.-Hablar por alguno grande de coger grande.

2.-Para reprender le dijo.

3.-Le tomó más afecto al más viejo.

4.-Si no te casas con aquella no tiene qué hacer cuenta de la casa, el *zer* quiere decir *no tienes qué hacer*; se escribe *etsiarekin*.

5.-No hay remedio; hemos de aguardar a lo que venga; siempre que sea de su mano que sea lo que convenga.

6.-*Jineto* es jinetico, por ejemplo, cuando va a caballo en un mulo un chico, o un hombre pequeño se dirá va a caballo un jinetico.

7.-Quiero que sigan bien.

8.-Es un grano de mucho alimento para los ganados, especialmente para el lanar; el primero se llama *jero* y el 2.º *beza*.

9.-Me ha durado en quince días que me ha dejado sin señal de fuerza; es *indar*; (debe decir *xotx*, *xotxik ere bage*).

10.-Si le hubiera hecho el favor (debe decir *mertxede*) que le pidió, no se hubieran enojado, (es *enuxaten*) y hubieran (debe decir *xarrekiten zren*) seguido en la misma amistad, se dice *adexkidetarzun*.

11.-Se dice al rico que nada se le da por nadie, al que tiene una obligación y no cumple, al que no tiene miedo y también al joven de poca educación.

12.-El sobrealiento que (debe decir *anitx*) a muchos agonizantes se les pone en el último trance de la vida.

13.-Que no podía digerir el mal de tripas.

14.-Huerta y una vez por una.

15.-Estoy por decir que no se pudré nunca.

16.-Despellejar o despellejado.

17.-*Gurrillon*, *Abete* a éste le ponen pino-abete y otros espino.

18.-Es de mucha correa para torcer.

19.-A todos los hombres nos tiene este frío en los hogares, quemadas las espinillas.

20.-Con el Avellano se hacen las cañablas *egitandra* dicen en Uztarroz, aquí, *egiten dra*; suelen venir, se dice, según se está hablando; por ejemplo, el cuco y otras aves, que suelen venir a la primavera, se dice *xiten dra*; otro: dos hijos de ésta residen en ésa desde ha mucho tiempo; y todos los años suelen venir a hacernos una visita; para esto se dirá *xiten zaizkugu*; *erorten dra*, *zartan dra*, *suge iltan dei*, *parete xuritan dei*.

21.-Para extremar los quehaceres de la cocina.

22.-Esta mañana se nos ha olvidado la sábana de la era en medio de la cuadra.

23.-Sin nada, le pongo las cosas, sin dar el caso; también alguna cosa sin ser (*izan bage*) (*solamente ta*) sólo porque atienda, oiga, vea y entienda nuestro bascuence.

Badago ele franko erraiten baidra letra berberetaz bi eta, irur, gisatako. Tal como para el nacer se dice *sortu* y para el que se pone sordo se dice *sortu*. Para un monte roturado se dice *irikirik*, para una puerta abierta se dice *irikirik* y para un mulo o caballo que está relajado de los pechos se dice *irikirik*. También hay que una palabra se dice de tres modos, según venga a la conversación; tal como, *si pudiera*, se dice: *ál banu*, *ál izan banu*, *ál banoke*.

Eztaud eskribitan obro aiketa orrek eskribi daztadan artio xakiteko ya kaur eltan zaunez. Etseko familiak, otoi egiten daitad, erran dazaudala oil dazkigun orren erretratoa ekus tzein nolako den, esprantzareki xa, egon biar dion lekuko itzia, sartruk dakad.

**Mariano Mendigatxa**

(Kartako pean eskribitu zion)

Betik digu tenpra otz, eta gaude elurraren pean eztingu berze lanik egiten baizik azken kartan erran nauna. Xarrekitan betik xateko ganu onareki minik ñon ere bage. Emon betza ene goraintziak Ligin egon zren irur apezet eta berze jein ginaundelarik liburu bat oiltu baizaun kari re bay.

*Vidángoz 10 de Enero de 1904*

*D. Resurrección María.*

*Mi buen señor: En esta le mando la respuesta, de las cosas que, usted, me decía en su última carta; a mi juicio se lo pongo lo mejor que yo sé; no sé por otra parte cómo entiende de las cosas que yo le hablo; porque no sé escribir bien y la pluma también se me escapa sin poner alguna letra.*

*De las cosas que me pregunta veo algunas que están mal puestas.*

*En toda carta que le envió le echo en falta y en ésta más que en ninguna; si yo pudiera viajar como un pájaro, volando, me habría visto usted a su lado para preguntar cosas y también para dar a entender.*

*Ahora empezaré a responder en erdara para darlo a entender mejor (b).*

*Ya hay bastantes palabras que se dicen con las mismas letras de dos y tres formas. No le escribo más de aquí hasta que V. me escriba para saber ya que recibió ésta. Los familiares, me ruegan que le diga a usted que nos envíe su retrato para que vean cómo es, con esperanzas pues en el sitio que debe estar el clavo lo tengo metido.*

*Siempre tenemos el tiempo frío y estamos bajo la nieve, no hacemos otro trabajo que el que le dije a V. en la última carta. Sigo siempre con buen apetito sin dolores en ningún sitio.*

*Dé usted mis recuerdos a los tres curas que estuvieron y al otro señor de los que teníamos, a aquel al que le envió un libro también.*

13

Bidankoze 1904 ko. Otsailaren 1na.

*D. Resurrekzion Maria.*

Ene jein ona: Eltu zaitad orren tarjeta, azken ilabetiaren 22n, eskribitua; ene familiari ezau onki andi urdutu, ekus tzan mundiuak (a), zer erraiten daitadan; eta erraiten daiteid, erran dazaudala, ezbadoke Parisen erden paperik eskribitako, nik, kementik oiltan daudala paper eta estalki, eskribi daztadan altxatruk.

Otxagabin, egin dabeid, ezdakid noiz orrek erran zaitadan, bixita egiteko orren altez, Bikario Jainari, bere anaxiari, Eduardo ostatu ekun zioneko nausiari, Eskribainari, eta Frantxiska Lijikoari ere bai; guziuak daude onki, eta guziuek estimatu zein zoinak obroz, orren alteko bixita, erraiten zaitadeilarik nontik guartu den etaz.

Negu minian gaudena gisa digu tenpra re; egun dago negu guzian ekun digun, egunik gaxtoena; usin dagonaz ezdokegu lexoetarik karrikara kukurik egin, tenpra anitxex kola xarrekitan bada, bizi denak, aurtengo negiuaz, eku-nen du kontu franko.

Biar Amaberjina kandelera zko eguna; bezperak erran, eta portikoan, iriko bezino guziuen izenak isartan dra bapana bere zeduletan, gero zuntatan tei sonbrero batian; onki errebolbi edo nastekatiareki, deitan dei, bi morroin; eta batak erkiten du zedula bat eta emoiten dau apezari; berze morroinak erkiten du berze zedula bat, eta emoiten dau Alkateri; biek leitan tei, eta noren izenak erkiten baidra, biar dei izan xunto; gisa kontan xuntatan da bezino guziua, bira-bira; gero faiten dra guziuak askaltra etse batra eta aigaltra berziara, gero Santa Ageda egunia, baita konen borzgarrian xuntatan dra pareja berak egun guzuko xan eta edatra; beren artian, etse eslejitan deiniara. Lein obligaraztan ztein xuntatra, bi pezeta, eta libra bat kandraren bakotxaren penan; orai ez dago penarik, xuntatan dra borontate dionak, baya orainore xuntatan dra obroak; anke ez obro ezik, apario baten egitra; leineko zarrer entzutiaz digu, gaiza kaur, isaririk zegola, ankartruk zaudenen bakian isartako; oray ere erreparatruk dakagu, komunkixe erorten dra xunto, zomait badaude ankar-truk edo enuxatruk; eta oboroek egiten tei bakiak, xuntagune kontan. Gaiza koni erraiten digu *urruxkideak* (b).

Motxgiuaz, eztakid zer erran; abriak, motxtan dra laur aldiz urtian; mart-xoan, garagarzaroan, San Migeladan, eta San Andresez; ardiak motxtan dra mayatzaren ogeigarnetik aiketa San Pedroetraino; bortuko ardiak San Pedroez gero.

Ganzta egiten da onletan; *onla* da, kabaña, eta *xasgu* (c) urteoro egiten deina; kabaña gantzaren egiteko, eta artzayen erreitiroarentako; eta xaxgiua ardien *bilgunia* (d), xaktako, edo irauskitako, edo erektako, gero eznia biltan dei olaberratarra; kan egoxtan dei koaju biar diona, kuajatzuz geroz, desegiten dei guziua, isartan dei, zuku lodi batian; gero bi eskiuez faiten dra biltuz, biltuz, eta isartan dei *mukulu* (e) batian; kari erraiten dabey *matoña* (f); matoña erkiten dei xura batra; kan esprimitan dei onki zuku guziua; gero isartan dei, aro edo kaxal batian, erstuz (g) suaren beroareki, egiten dei ganzta. Zuku (h) baratan dena, egoxtan dei bertz batian, egosiz geroz baratan da errebullokatruk, gero *agorxaliaz* (i) biltan dei errebulloak eta kartaz egiten dei errekesuna; errekesunetik baratan den zukiuari erraiten dabe *txirikot* (j); txirikotaz gizentan tei txerriak eta bai emoiten dei ere erremediotako anitx eriri; ardi bapanari gentan dabe iror edo laur libra ganzta; eta zortzi edo amar onza errekesun. Ganzta saltan dei, freskuan, ogei ta zazpira pezeta arroba; eta orai pezeta bana libra; errekesuna saltan dei, bira errial libra; errekesuna gastatan da *zukungarritako* (k) goreximan eta bijiliazko egunetan; gente komu-nak zopatako, nayago du errekesuna ezik orioa.

Egin ala egin dud D. Arturo erkin ledin diputao; baya ezaitad baliatu; orai xa xakin al du erkin da Mella. Ark, ere, eskribitu zaitadan, baya eztaud errespuestarik egin, disgustatruk al dagola.

Berriz baratu gra maestrorik bage; giniona fan zaikugu arrentaz San Sebastianeko arrabaletra; ez tigu esprantzarik, xin ezaikula maistrorik negu guzian; berriz ere, ezta faltaren morroin asto; eskribi beztad Bilbabetik bino naroxago. a Dios Don Resurrekzion.

Mariano Mendigatxa

Vidángoz 1 de febrero de 1904

*Don Resurrección María.*

*Mi buen señor: Me ha llegado su tarjeta, la escrita el 22 del mes último; a mi familia no le había parecido muy bien que vean todos lo que usted me dice; y me dicen, que le diga a usted si no puede encontrar en París papel para escribir, yo, desde aquí le enviaré papel y sobres para que me escriba privadamente.*

*En Ochagavía, les hice, no recuerdo cuándo me lo dijo usted, la visita para hacer de su parte, al Señor Vicario, a su hermano Eduardo al dueño que lo tuvo hospedado, al Escribano, y también a Francisca la de Liji; todos están bien y todos agradecieron a cual más la visita de su parte diciéndome por dónde se había acordado de ellos.*

*Tenemos también el tiempo como que estamos en pleno invierno; hoy está el peor día que hemos tenido en todo el invierno; habiendo remolinos de viento y nieve no podemos ni asomar por las ventanas a la calle, si sigue así por mucho tiempo, el que viva tendrá bastante que contar del invierno de este año.*

*Mañana el día de la Candelaria de la Madre Virgen; cantar las vísperas y en el pórtico se ponen los nombres de todos los vecinos del pueblo cada uno en su cédula, luego se juntan en un sombrero; bien revueltos o mezclados, se llama a dos muchachos; y uno saca una cédula y se la da al cura; el otro muchacho saca otra cédula y se la da al alcalde; los dos las leen y cuyos nombres salen deben estar juntos; de esa forma se junta todo vecino por parejas; después se van todos a comer a una casa y a cenar a la otra, después el día de Santa Agueda; que es cinco días después de éste se juntan las mismas parejas a comer y beber todo el día; a la casa que elijan entre ellos. Primero les obligaban a juntarse bajo pena de dos pesetas y una libra de cera cada uno; ahora no hay pena, se juntan los que tienen voluntad, pero todavía se juntan la mayoría; aunque no sea sino a hacer una cena; tenemos oído a los viejos de antes que esta cuestión estaba puesta, para poner en paz a los que estaba reñidos; ahora también tenemos observado, comúnmente caen juntos, si están algunos reñidos o enfadados y los más hacen las paces, en esta reunión. A esta cuestión le decimos urrutxikiak.*

*No sé qué decir acerca del esquileo; los animales se esquilan cuatro veces al año; en marzo, en junio, en la Sanmiguelada y por San Andrés; las ovejas se esquilan a partir del veinte de mayo hasta San Pedro; las ovejas del Puerto después de San Pedro.*

*El queso se hace en las cabañas; la cabaña es onla y la muidera es xaxgu la que hacen todos los años; la cabaña para hacer el queso y para retiro de los pastores; la muidera lugar de reunión de las ovejas, para ordeñar, luego reúnen la leche al depósito, allí echan el cuajo que se necesita, después de cuajada, deshacen todo, lo ponen en un caldo espeso; después con las dos manos se va reuniendo y lo ponen en un montón; a eso le dicen cuajada; la cuajada la sacan a*

*una coladera; allí exprimen bien todo el caldo; luego lo ponen en un aro o corteza apretando, con el calor del fuego, hacen el queso. El caldo que queda, lo cuecen en un caldero, después de cocido se queda convertido en grumos, después recogen los grumos con la espumadera y con ellos hacen el requesón; al caldo que queda del requesón lo llaman suero; con suero se engordan los cerdos; y también lo dan como remedio a muchos enfermos; a cada oveja le quitan tres o cuatro libras de queso y ocho o diez onzas de requesón. Venden el queso en fresco a veintisiete pesetas la arroba; y ahora a una peseta cada libra; el requesón lo venden a dos reales la libra; el requesón se gasta para guiso de las comidas en cuaresma y en los días de vigilia; la gente común prefiere el requesón que el aceite para las sopas.*

*He hecho lo posible para que D. Arturo saliera diputado; pero no me ha valido; ahora ya puede saber usted que ha salido Mella. El también me escribió pero no le he contestado, puede estar disgustado.*

*De nuevo nos hemos quedado sin maestro; el que teníamos se nos ha ido por renta a los arrabales de San Sebastián; no tenemos esperanza que nos venga maestro en todo el invierno; de nuevo no faltarán muchachos burros; escríbame más frecuentemente que desde Bilbao. Adiós Don Redurrección.*

## 14

Bidankoze 1904ko. Martxoaren 1na.

D. Resurrekzion Maria.

Ene jein ona: Karta kontan isartan daud Yñaute egunaz eta balle kontako bizi moldiaz.

Kemen, ene tenpra guziuan Iñaute eguna guartan digu xei egun baten gisa; gente guziua egoiten da etsen eta azkazi eta adexkide anitxek egiten dei bazkariak xunto; aurten, tenpra dela kaso, iñaute eguna izan da, gorexima egun baten bikain triste; egun guziua egon da elurrari dinba-danba; gesal bateki karriketan, ezbaizaizketen kristiañk (a) erkin; ezen beztitu zipoterorik ere.

Kemen, irur eramu digu bizitako: kosetxa, zunra eta ardiak; kemen emaztekie orobat trabajatan da, nola gizakia, mendi lanetan; kosetxako abantxu lan guziua egiten dei emaztek; balle kontra ezdaiteke xin emaztekirik serbutxatra; ezbaidakiei mendiko lanetarik. Badu ogei edo obro urte gente biardunen neskato guziua faiten dra Frantziara negu guzuko espartañan trabajatan, kantik xin (b) eta badei egun oro pezeta, bat eta kostiua jornal; eta egita tenpran ilabete batez edo obro, kostiua, eta irurna pezeta; konengatik dago emaztekien zerbutxiua galtruk.

Ene mente guziuan, eta anitxex leintarik, kemen izaguntan da zunrezko trafikiua, geroago eta oboroago; xaz, tenpra kuetan, balle konek saltu zion ogei ta bi milla duroren arboleak, ize, bago, eta lertan; berzerik saltu zion Gobernu bati balleko komun guzuko lerrak kalako lodiguiatik gora; ogei urterentako ogei milla duroren; gainara, bezino doken guziuek trabajatan dei dokeina; balle kontan, dago beso txiki, trafiko dagonaren, zunr trabajatako; xiten dra Aragoko lein irietarik anitx peon; eta Probinzietarik (c) ere bai, xiten

dra anitx kuadrilla, bedatse eta uda guzuko; korrengatik kemenko peona, da kario; orai berian irabaztan du kostiua eta irur pezeta, mayatziaz gero, irabazen dei, laurna eta kosturik bage, borzna eta erdira; xaz, eltu zren irabaztra alte bat, ogeita zazpita errial peon bakotxaren.

Erran duan gobernuko korrek Aragokoan zakan erosirik berze lerdoi bat, eta lerdoi kartan, azken uda igarian, emon zakan, banek erraiten zein, zazpiein gizon; eta berze banek erraiten zein milla. Izaba mendiko mugan egon zren trabajatan, Anoko mendian (Aragon); ezdakid zer erritako zren; gisa guzিয়েz emon zen gente miserable bat; gaxki beztitruk, erdi bilainzruk; ez emon zein xaten baizik bi errantxo arroz, ardaunrik ekusi bage; ezren irietra batrere arrimatu, beren erritik xin zren lerdoyara eta lerdoyetik fan zren beren errietra; erran emon zein aurten xinen zrela balle kontra; ezitein ekusi solo artzain eltu zrenek muga kartra.

Orai artio erran daudanaz, berorren baitan erranen du, zer balle abrats al da kura, kainbat deuri erkiten dionian arboletarik; bada xakin tzan guziua, Karlos setimoaren gerraraino, zegon ballia, ogeita borz milla duroren zorrian, karretera egin zen tenpratik; gero Karlosen gerran karlisten deitu zteinian mitilak, emezortzi urtetarik, aiketa ogeita ezdakid zomatradraino, balle koni mitilak eraman biarrian pakarazi zein ogeita bi milla duro; leinekueki eta reditoetra zor zegonareki, xaz eltu zen zorra berrogei eta bedratzu milla durotra. Zor korren pakatiagatik saltu da kainbat arbole; daigun aprilian edo mayatzian berantena, akabaten da pakatiaz zor guziua.

Egon zaiteken bai, balle kaur aski abrats; baya eztago gizonik, dago aministracione gaxto bat, eta bizpor abratsentako solo, dra, balleko ontarzun guziuak.

Negiuia betik xarrekitan gaxto. Ardidunak daude anixko kuxu; saldoak daudela flako, eta axuri txiki; eztagola xatekorik. eta erribra zolan urik ere ez emon dokei alkanza; orainore lotsareki daude, Jangeikoak ezbadu erremediatan tenpreareki, izaitra duala zomait mortalera andi.

Anitx alegraten naz, erri korrek ar dazaun onki, eta gaizak ere erkin zizkiola gisa berian.

Ni ere nago osagarrireki; anke negiuia gaxto duala, orai artio xa, eztud buru min bat, eta ez eztul bat ekun.

Nola azken kartan, eta kontan direzionia berze gisatra isartan baitud, kuidao pikor bat baratan zaitad errezibitan tionez ote.

Adios D. Resurrekzion Maria.

Mariano Mendigatxa

Vidángoz 1 de Marzo de 1904

*D. Resurrección María.*

*Mi buen señor: En esta carta le pongo el día de Carnaval y la forma de vivir de este Valle.*

*Aquí, en toda mi vida guardamos el día de Carnaval como un día de fiesta; toda la gente suele estar en casa y muchos parientes y amigos hacen las comidas juntos; este año, por causa del tiempo, el día de carnaval ha sido tan triste como*

un día de cuaresma; todo el día ha estado nevando sin parar; con una nieve derretida en las calles, pues no podía salir cristiano; ni se vistió de máscara.

Aquí tenemos tres recursos para vivir: cosecha, la madera y las ovejas; aquí la mujer trabaja también, como el hombre, en los trabajos del monte; todo el trabajo relativo a la cosecha lo hacen las mujeres; a este valle no pueden venir mujeres a servir porque no saben de trabajos del monte. Hace ya veinte o más años que todas las chicas de las gentes necesitadas van a Francia por todo el invierno a trabajar en las alpargatas, de ahí viene y porque tienen un jornal diario de una peseta y el costo y en el tiempo de la cosecha por un mes o más, el costo y a cada tres pesetas; por esta causa está perdido el servicio de mujeres.

En toda mi vida, y mucho antes, se conoce aquí el tráfico de la madera, cada vez más; el año pasado, en estos tiempos, este valle vendió árboles por veintidós mil duros, en pinos, hayas y abetos; por otra parte vendió a uno del Gobierno, los pinos de todo el común del Valle, de tal grueso hacia arriba; por veinte años en veinte mil duros; encima, todos los vecinos que pueden trabajan lo que pueden; en este valle hay pocos brazos para el tráfico existente para trabajar la madera; vienen muchos peones de los primeros pueblos de Aragón; y también de las Provincias vienen muchas cuadrillas, para la primavera y todo el verano; por eso el peón de aquí es caro; ahora mismo gana el mantenimiento y tres pesetas, después de mayo, ganarán, cuatro cada uno, y sin mantenimiento a cinco y media; el año pasado se llegó a ganar en un momento a veintisiete reales por cada peón.

Ese del Gobierno que he dicho, en lo de Aragón tenía comprado otro pinar y en ese pinar, pasando el último verano, dicen que tenía, según unos, setecientos hombres y otros decían mil. Estuvieron trabajando en el límite de Isaba, en el monte Anoko (Aragón); no sé de qué pueblo eran; de todos modos parecía una gente miserable, mal vestidos, medio desnudos; no les daban de comer más que dos ranchos de arroz, sin ver nada de vino; no se arrimaron nunca a los pueblos, vinieron de su tierra al pinar y del pinar se fueron a su tierra; se dijo que este año habían venido a este Valle; no los han visto sino los pastores que han llegado a aquel límite.

De lo que le he dicho hasta ahora, usted dirá para sí, qué valle rico puede ser ése, cuando saca tanto dinero de los árboles; pues para que lo sepa todo, hasta la guerra de Carlos Séptimo, estaba el valle en deuda de veinticinco mil duros, por el tiempo de hacer la carretera; luego en la guerra de Carlos, cuando los carlistas llamaron a los mozos, desde los dieciocho años hasta yo no sé veinticuantos, en la necesidad de llevar a los muchachos obligaron a este valle a pagar veintidós mil duros; con los anteriores y con la deuda que tenía a réditos, el año pasado llegó la deuda a cuarenta y nueve mil duros. Para pagar esa deuda se han vendido tantos árboles; en el próximo abril o lo más tarde en mayo se acabará de pagar toda la deuda.

Podría estar sí, este valle bastante rico; pero no hay hombres, hay una mala administración y, para unos pocos ricos sólo son todas las riquezas de este valle.

El invierno sigue siempre malo. Los ganaderos están bastante preocupados; los rebaños están flacos, y pocos corderos; no hay qué comer y dícese que no pueden alcanzar agua en el suelo de la Ribera; todavía están con miedo, si Dios no lo remedia, con el tiempo, que va a haber una gran mortandad.

Me alegraré mucho de que ese pueblo lo reciba bien y que las cosas le salgan también en la misma forma.

*Yo también estoy con salud; aunque el invierno esté malo hasta ahora pues, no he tenido un dolor de cabeza ni una tos.*

*Como en la última carta, le pongo la dirección de otra forma, me queda un poquito de cuidado de si las recibe o no.*

*Adiós D. Resurrección María.*

## 15

Bidankoze 1904 ko. Mayatzaren 22 na.

D. Resurrekzion Maria.

Ene jein ona: Ene baitan dago orren karta, konen amaseigarnekoa. Boztario artu nionak eznu eiztan konxabatra eskribitu bage; korrengatik, egun Bazko Eguna aprobetxatan dud bara nein sosegatruk: antzinian dakad karta errana; artaz ekusten dud, lan daramana; baya betik baratan naz ernari, xakin nay noizko, edo noiz artio irainen daun korko lana.

Anitx alegratu nu, orren adexkide, Dotore Broussain'nen bordalgiuak; Jangeikoak nai diola egin ditzein ezteyak; emon dazabeila osagarri, eta grazia xunto bizi izaiteko, bakian eta amorioan, senar emazte gisa, anitx urtez. Eltan bada faitra ezteyeta, ene altez emon bezkau noranbuena; milla karga gorantzi, eta anitx guartan nazala artaz.

Prinzipe Bonaparteren gaiza uskaraz eskribitu nionetarik, eztud letra bat ere, eznaz guar zer eskribitu naun; ezta estrañu izanen zerbait liferenzia erden tzan gunetik konat ene uskaran, zeren oray gaxki eskribitan badud, gunian gaxkiago.

Luis Luziano Bonaparte'danik, badud bi erretrato onki guardatruk, bata emon zaitadan San Juan de Luz'en; eta berzia oiltu zaitadan Londres'etik.

A, zer gogotik leinozke orrek Londres'en, artikulo eskribitu tionak uskaraz, banaki zoin gazetatan dauden, orrek erran beztad zomait karta oiltan dadanetan, ya non erdeiten dren.

Eltu gra, lanek apuraztan gitein tenprara; orai berian igari dud Erronkarin amaborz egun, zuñr egiten eta lot lan (a); kementik antzina eznaz xinen etsera, solo igantetan eta xeyetan, (osagarri dudalarik) eztud leitako tenprarik, baizik xeyak eta Igantiak, kurak igartan tud oso-oso; baya eztozke akaba leitiaz.

Badaramatzagu iror urte gaxto, xunto; oray bi urte orreki nengolarik Lijin, arri eraunsi batek, eraman zaikugun kosetxa; xaz, zoritu zren gariak, granorik bage; ez ginion biltu, baizik autz; eta, aurtan negu gaxto egin dionaz galtu zaizkugu; eztigu esprantzarik biltu biar digula, ez garirik, eta, ez autzik; korrengatik biar digu emon zuñrari al digun guziuz.

Ortaz guartan nazalarik, naro eskatan naz (b) gore Jeinari usur ditzan orrengain bere bendizioiak; betik, baya komunkixe aiketa lana eginik, buelta dein artio etsera.

Akaitruk bainago, orai xa eztaud obro isartan.

Adios D. Resurrekzion berziaraino.

Mariano Mendigatxa

Vidangoz 12 de mayo de 1904

*D. Resurrección María.*

*Mi buen señor: Conmigo está su carta del dieciséis de éste. La alegría que recibí no me deja conforme sin escribir; por eso, aprovecho hoy Día de Pascua para quedarme sosegado: delante tengo la dicha carta; por ella veo el trabajo que lleva; pero siempre me quedo alerta deseando saber para cuándo o hasta cuándo le durará el trabajo de allí.*

*Mucho me ha alegrado el casamiento de su amigo el Doctor Broussain; Dios quiera que se celebren las bodas; que les de salud y gracia para vivir en paz y en amor como marido y mujer, por muchos años. Si llega a ir a la boda, dele de mi parte la enhorabuena; mil cargas de recuerdos y que me acuerdo mucho de él.*

*De las cosas que yo escribí del Príncipe Bonaparte, no tengo ni una letra, no me acuerdo lo que le escribí; no será extraño que encuentre alguna diferencia de entonces a ahora en mi vascuence porque ahora escribo malamente, peor que entonces.*

*Ya tengo dos retratos de Luis Luciano Bonaparte bien guardados, uno me lo dio en San Juan de Luz y el otro que me envió de Londres.*

*Ah! ¡Qué gusto tendría V. con los artículos que escribió en bascuence, si yo supiera en qué periódicos están!; dígame V. en alguna de las cartas que me envía, dónde se encuentra.*

*Hemos llegado, al momento en que el trabajo nos apremia; ahora mismo he pasado quince días en Roncal trabajando y atando madera; de aquí en adelante no vendré a casa, sólo en los domingos y en las fiestas (si tengo salud) no tengo tiempo para leer, sino las fiestas y los Domingos; esos los paso completos pero no los puedo acabar de leer.*

*Ya llevamos tres años malos, juntos; ahora dos años, estando con Vd. en Ligi, una tormenta de piedra nos llevó la cosecha; el año pasado maduró el trigo sin grano; no recogimos sino paja; y en este año por el mal invierno que ha hecho se nos ha perdido; no tenemos esperanza de que deberemos recoger ni trigo ni paja; por eso debemos darnos a la madera todo lo que podamos.*

*Recordando todo eso, frecuentemente me pido a nuestro Señor que derrame sobre Vd. sus bendiciones; siempre pues, normalmente, desde que hecho su trabajo hasta que vuelva a casa.*

*Puesto que estoy cansado, ahora ya no le pongo más.*

*Adiós D. Resurrección hasta otra.*

16

Bidankoze 1904 ko. Garagarzoaren 29 na.

*D. Resurrekzion María.*

*Ene jein ona: Eltu gra osagarrireki Sn. Pedro gore patronaren eguniarat. Kemen fiestak ekuten tigu anitx alegre; aurten ere animazione andia dago gentiaren artian, anke antzineko egun kuetan izan dela aski sendimentu; korrengatik ezta izagun fiestetako dispozizionian. Sendimentuia izan da, atzo zortzi erori zen ur erauntsi andi bat, eta ugaltian zunr drezatrak zauden guziuiak arrankatako saltra erribrara, erreketarik xuntatu zen urbultziuak,*

eraman ztion; oray dabilta nausiak, zunr eramanen biltan, baya aurten xa, ezdozkei sal, tenpra igari baita; guk ekun ginion suerte; erauntsiaren bezperan xin zen errena (a) azken zunra saltruk.

Nola Mayatza fan baizen (a) on, kosetxa xiten zaikugu goxtarxago; garagarak zoritruk daude eta gariak zortzi edo amar egunen buriuan asen gra egitatan.

Tenpra digu euritsu; badu bizpor egun ezdela ixiltan odei marraka.

Broussain Hazparrenekuak oiltu zaitadan tarjeta bat uskaraz eskribitruk, baya ezdoked ele bat entelega; parentesisen artian erraiten daitad erdaraz konen amaseigarnian bordaltan dela.

Nola xinistian bainago arek ere ezdiola entelegaten ene uskara, korrengatik ezdaud eskribitu, baya ezdakad antzerik; uste dud berze tenpra batez eskribi, anke ez berze gaizagatik, solamente ta ekus tzan zerbait gore uskaratik.

Ezdaud eskribitan oboro aski lan egitia baita, gore Sn. Pedro egun andia-  
rentako.

Adios D. Resurrekzion aiketa Garilekoaraino, Jangeikoak nai badu.

Mariano Mendigatxa

Vidángoz 29 de Junio de 1904

*D. Resurrección María.*

*Mi buen señor: Hemos llegado con buena salud al día de nuestro patrón San Pedro. Aquí solemos tener las fiestas muy alegres; este año también hay gran animación entre la gente, aunque ha habido en estos días anteriores bastante sentimiento; por eso no se ha conocido en disposición para las fiestas. El sentimiento ha sido, ayer ocho cayó una gran tormenta de agua, y todos los maderos que estaba preparados en el río para arrancar a venderlos a la Ribera, la corriente de agua que se juntó por los barrancos los llevó; ahora andan los dueños reuniendo los maderos llevados pero este año ya no los pueden vender pues ha pasado el tiempo; nosotros tuvimos suerte; en la víspera del chubasco vino la nuera vendidos los últimos maderos.*

*Como mayo fue bueno, nos viene la cosecha algo más temprano; la cebada está madura y el trigo dentro de ocho o diez días empezaremos a segar.*

*Tenemos tiempo lluvioso; pues hace ya varios días que no calla el rugir de los truenos.*

*Broussain el de Hazparren me ha enviado una tarjeta escrita en vascuence pero no puedo entender una palabra; me dice entre paréntesis en castellano que se casa el dieciséis de éste.*

*Pues como yo estoy creyendo que él tampoco entenderá mi vascuence, por eso no le he escrito pero no lo tengo olvidado; pienso escribir en otro momento, aunque no por otra cosa, solamente para que vea algo de nuestro vascuence.*

*No escribo más pues ya es bastante el trabajo hecho hasta el gran día de San Pedro.*

## 17

Bidankoze 1904 ko. garilaren 25 na.

D. Resurrekzion Maria.

Ene jein ona: Atzo arratsen menditik xin nintzen tenpra berian, eltu zitzaitadan, orren erretratoa, boztario ekun nionaz, besarkatu nion; egun, familia guziua dakagu esku artetan (a) egun guzian; eta ez gaizteke asper berari beira egitiaz; bizi nazan tenpran onki bixi kostatruk (b) izanen da.

Egitako lanaz, nago akaitruk; tigu, tajoak anixko gaxto; gariak me eta enredatruk zomat izpi, kainbat alte; kosetxa digu gaxto; ezdaikugu emonen biltako gastu egiten digunarentako.

Parka beztad; ezdau obro isartan, bainago arrainetarik baldatruk; ezdoked eskribi, ezbainaiteke xaxerik egon.

Noiznai den maita dein, kortik oil beztad direzionia, nora biar daudan eskribitu.

Adios D. Resurrekzion.

Mariano Mendigatxa

Vidángoz, 25 de julio de 1904

D. Resurrección María.

*Mi buen señor: Ayer en la tarde al mismo tiempo que vine del monte, me llegó su retrato; de la alegría que tuve lo abracé; hoy, toda la familia lo tenemos todo el día entre las manos; y no podemos cansarnos de mirarle; el tiempo que yo viva, será joya bien valiosa.*

*Estoy cansado por el trabajo de segar; tenemos los tajos muy malos; el trigo delgado, y enredado, tantas briznas tantos granos; tenemos mala cosecha; no nos dará para el gasto que hacemos para recogerlo.*

*Perdóneme; no le pongo más; pues estoy baldado por la pesca; no puedo escribir pues no podría estar sentado.*

*Cuando quiera que lo desée, desde ahí envíeme la dirección, a dónde debo escribir.*

Adiós D. Resurrección.

## 18

Bidankoze 1904 ko. Agorrilaren 6 na.

D. Resurrekzion Maria.

Ene jein ona: Fan den ilabetian, egun, karta eskribitu naunaren biramenian, eltu zitzaitadan, orrena, eskribitruk 22an. Artan ekusten dud, nola, orren etsekuar urdu zabein, erretratoan, zartruk dagola; nik, ene azkenian, ez nai naun erran deusere, usterik uts egiten niola: baya, yaketa nay baitu xakin, egiaren erraiteko, ene urdukari, dago zartruk eta flako; oray berian nago beirtarte-beritarte berareki; eta eztud ekustan baizik, korpiz me bat edo mear

bat, sotanaz tapatrük; ¿non tu tripako, burarreko, eta soingaineko gizenkiak? lepoko gorbatak berark eratsukitan du nola dakan utsik gizenkiaren lekiua.

Orren erranik dakadan kartan, ekusten dud diola intenzione xiteko baka-zionetan, uda aspaldixko baten igartra, eta xunta gitian biak, zomait egunen, den lekiuan dela. Nik osagarri duranareki, gore Jainaren graziareki batian, (animoez ezbanei engañatan) trebe naz faitra deitan zion lekiuara.

Elezko lista oiltu daitadana, ene urdupenian, boeki emonen naun entelegat-ra itzez, edo elez (a), el baginte xuntatra biak; korrengatik eztaud erraiten deusere. Ezbazazka erkiten onki gaizak edo ezbagra eltan xuntatra, berantago oiltan dazkad al dokedan obekiena.

Orai gaude eltzuka, tenprak laguntan badaikugu, fite akabaten digu.

Konen bigarnian erori zitzaikugun arri erauntsi andi bat; kartxiri guziuak erraustu baidutu.

Txiki dra egun igartan drenak ortaz guartu bage, eta lagun dazan biar dion gaiza guziuetan, Jangeikoari otoi egin bage.

Adiós D. Resurrekzion berziaraino.

Mariano Mendigatxa

Vidángoz 6 de agosto de 1904

*D. Resurrección María*

*Mi buen señor: En el mes pasado, al día siguiente de la carta que le escribí, me llegó la suya, escrita el 22. En ella veo que a los de su casa les parece que está Vd. envejecido en el retrato; yo, en mi última, no le quise decir nada, pensando que me equivocaba; pero ya que lo quiere Vd. saber, para decir verdad, a mi juicio, está envejecido y flaco; ahora mismo estoy frente a frente con él; y no veo sino uno de cuerpo flaco o delgado, envuelto con la sotana; ¿dónde tiene las gorduras de la tripa, del pecho y de las espaldas? la misma corbata del cuello muestra cómo tiene vacío el sitio de la gordura.*

*Veo en la dicha carta de Vd. que tiene intención de venir en las vacaciones, a pasar un tiempito del verano, y que nos juntemos los dos, algunos días, en el sitio que sea. Yo con la salud que tengo, a una con la gracia de nuestro Señor, (si no me engañan los ánimos) soy capaz de ir al sitio que llamase.*

*La lista de palabras que me envía, a mi juicio, mejor me lo hubiera dado a entender de palabra (o de palabra) si nos hubiéramos llegado a juntar los dos; por eso no digo nada. Si no salen bien las cosas o si no nos llegamos a juntar, más tarde las enviaré lo mejor que yo pueda.*

*Ahora estamos trillando, si nos ayuda el tiempo, acabaremos pronto.*

*En el segundo de éste nos cayó una pedregada muy grande; pues nos ha arrasado todas las huertas.*

*Pocos son los días que pasan sin acordarme de Vd. y sin rogar a Dios que le ayude en todas las cosas que necesita.*

*Adiós D. Resurrección, hasta otra.*

Bidankoze 1904 ko. Setemeraren 27 na.

**D. Resurrekzion Maria**

Ene jein ona: Azken Garilaren ogei ta bigarneko kartan, erraiten zaitadan, ilabete baten buriuan xinen zela Española aspaldixko baten igartra bakazionetan; nola igari baidra bi ilabete, nago orai xa xinik dagola; ezбайдakid non den orren barapena, eztud esprantzaz andirik el dein karta kaur orren eskiuetra. Betik eta noiz mutatan den leku baterik berziara mertxedez erraiten daud, oil beztad erraitra non baratan den, eta karten direkzionia, etzadan ekun sospetxarik galten drela.

